

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Iosu Murgia Glez. De Mendoza, MISTOA-ARALARreko ordezkaria denak, idatzi honen bidez, eta Batzar Nagusien Jarduerarako Araudiaren arabera, Ubarroi Handiari buruzko honako **ARAUZ BESTEKO SALOA** aurkezten dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

ZIOA

Jasangarritasuna eta Ingurumenaren alde dagoen edozein gobernuak, helburu nagusienetariakoak legez, habitat-aren babes eta espezieen kontrola izan behar ditu.

Habitat eta Ingurumenaren babesarako neurri ezberdinak planteatzen direnean, bai eta, batez ere, espezie batzuen murrizketa badaramate, indarrean dauden araudiak jarraitu behar dira. Hegaztien Arautegi Europarrak populazioaren kontrolerako neurriak aurreikusten ditu. Arautegi horrek, kontrolerako neurriak ezartzeko beharra erakusteko asmoz, edozein neurri hartu baino lehen ikerketa sakona eta serioa egin behar dela proposatzen du.

2003ko urtean Bizkaiko Foru Aldundiak ikerketa bat egin zuen. Ikerketa horrek arazo bat zegoela argi erakutsi zuen eta hegazti hauen aurkako sarraskia aurrera eroan beharrean beste motatako neurriak egin behar zirela adierazten zuen.

Hala ere, ikerketa berri baten ziurtasuna izan barik, eta neurri berri batzuk martxan jartzearen ebaluaketa bat egon barik, Bizkaiko Foru Aldundiak Araudi Europarraren eta Aldundiak berak egindako txostenaren aurka doan Foru Araua argitaratu du.

Hau guztia dela eta, hurrengo proposatzen dugu:

- 5438/2007 Foru Agindua, irailaren 13koa, Bizkaiko barruko ibai-arroetan ubarroi handia kontrolatzeko egitaraua baimentzen duena baliogabetzea.
- Azterketa zehatza egin dadila ubarroi, izokin eta amuarrain espezieen habitat bereko poblazioak babesteko irtenbide eta arazoetan sakontzeko. Azterketa horretan inplikaturiko gizarte eragile orok hartuko du parte, esaterako: instituzioek, arrantzaleek, ekologistek...
- Azterketa horretatik irtendako, eta adostasunez hitzarturiko, kontrol-neurriak aplikatu beharko dira.

Bilbo, 2007ko Irailak 19
Iosu Murgia Glez. De Mendoza
Mistoa-Aralarreko ordezkaria